

AURKEZPENA

ANDRES M. URRUTIA

Euskaltzainburua / Presidente de Euskaltzaindia / Président de l'Académie de la Langue Basque / Head of the Royal Academy of the Basque Language

Euskararen normatibizazioak, XXI. mende honetako lehen laurdena bukatzeaz dagoela, berebiziko osagaiak ditu, aldiak aldi. Hartara, euskararen erakunderik gorenak, Euskaltzaindiak, bere inguruan bildu ditu euskal hizkuntzaren partaide diren hainbat aditu esanguratsu, helburu zehatz batekin: zer egin den eta zer dagoen eginkizun, bi horien artean gogoetatzeko, jakinik, hori bai, hizkuntza egunero moldatzen dela gizartearen, hiztunek euren hartu-emanetan erabiltzen dutenean.

Euskaltzaindia XX. mende hasieran sortu zen. Orduko eta gaurko egoerak arras desberdinak dira euskarari dagokionez. Xederik behinenetakoa izan zuen —bakarra ez bazen ere— euskararen batasuna —garai hartan hala deitu baitzitzaien hizkuntzaren normatibizazioari— bi bide edo ardatz jarraiturik, alegia, «koine» baten bila joatea lurraldeetako euskalki desberdinen gaintetik eta horren moldaketa eskuratu, hizkuntza baten gizarte zeregin guztietarako, hauek asko ezezagunak baitzitzazkion euskarari.

Egun, mendea igarota, bertan gorabehera politiko, joan-etorri sozial eta errealitate anitzen ondoren, euskarak ofizialtasun juridikoa erdietsi du Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroako lurralde zati batean, artean inolako estatusik ez duela Lapurdi, Zuberoa edo Nafarroa Beherean.

Euskarak, alabaina, aldi honetan badu halako zeregina eta zeresana, sona eta balioaren ikuspegitik, hain zuzen ere, bat ez datorrena bere gizarte erabile-
rarekin. Horrexegatik da premiazkoa gogoeta hau, ehun urte geroago, euskara-

ren estandarizazioak zer ekarri duen egoki hausnartzeko. Horretara dator, etorri ere, Euskaltzaindiak taxutu duen hau, jatorri askoren espezialisten ekarpenekin. Halakoak Arantzasun egin dira 2018. urtean, bertan ere, 1968. urtean euskara batua, hots, euskararen normatibizaziorako gaur arte egin den saiorik arrakastatsuen gertatu baitzen.

Argitalpenaren egitura bost arlo nagusitan banatu da, bakoitzak barruan hartzen duela normatibizazioaren ardatz nagusi bat.

Lehen-lehena, euskararen estandarizazio prozesua eta horren bilakaera hartzen du gidari, ikuspegi soziohistoriko batetik. Hasierako ekarpena liburu honen argitarazlearena da eta bertara biltzen dira etorkizuneko bost ildo: *lurraldetasuna, gizar-teari zerbitzu ematea, erreferentzialtasuna, gizarte ikusgarritasuna eta lan akademiko eta zientifikoa*. Horiei guztiei, zer esanik ez, gehitu behar zaie linguistika aplikatuaren ikusmoldea.

Hasian hasi, **bigarren arloak** bestelako hizkuntzen esperientziak biltzen ditu. Besteak beste, frisia, katalan edo galizierarenak. Halaber, Europako panorama eta etorkizuna, batik bat, gutxiengo hizkuntzen estandarizazioari buruz. **Eric Hoekstra** eta **Hans Van de Velde** unibertsitateko irakasleek frasieraren historia eta gorabeherak garatzen dituzte, egungo egoera ere azalduz eta, batez ere, estatu mailan hizkuntza horrek behar duen bultzada sendoaz dihardute. Ikusmira orokorrigo batetik abiatu, Namur Unibertsitateko **Jeroen Darquennes** irakasleak gogoetetzen du Europako hizkuntza gutxituen estandarizazioaren inguruan eta horietan estatuak izan duten jokabidea; aldi berean, Haugen autoreak aurkezturiko eskema klasikoari estandarizazio eredu desberdina kontrajartzen dio; bide beretik egileak berak aldarrikatzen du hizkuntza gutxituen estandarizazio prozesuak hobeki ezagutzeko premia, etorkizuneko hizkuntza politika baten tresna gisa.

Bigarren arloa osatzen dute bi azalpen mamitsuk: bata, **Joan Martí i Castell** euskaltzain ohorezko eta Tarragonako Rovira i Virgili Unibertsitateko katedradun emerituarena eta, bestea, **Manuel González González**, Galiziako Errege Akademiaren eta Santiago de Compostelako Unibertsitateko katedraduna. Lehenak azpimarratzen du katalan hizkuntzarentzat Institut d'Estudis Catalans-en agintaritzaren linguistikoaren premia, monozentrismoan oinarritua baino, haren hitzekin esateko, *extensamente, intensamente y ejemplarmente policéntrico*. González irakasleak, aldiz, kultura baten komunikazio tresna ezinbestekoa ikusten du hizkuntza estandarra. Hor kokatzen du berak, halako ibilbidea, gaitz eta aldapatsua, Real Academia Galegak egin duena, Instituto da Lingua Galega-Universidad Santiago de Compostela erakundearekin batera.

Hirugarren arloaren ardatza euskararen geografia linguistikoa da. Hainbatez, geografia horren ekarpena azaltzen da euskararen batasunari buruz. Lehen ikerketa egiten du **Adolfo Arejita** euskaltzain osoak eta *Iker* sailaren buruak,

euskara batuaren eta ahozko transmisioaren arteko harremanak ikertzen ditu, batera sustatuz hizkuntzaren kalitatea eta erregistro desberdinen arteko erabilera orekatua: *non, zer, zelan esan*, ahozkoaren pisua, sare sozialak eta idazleen konpromisoa euskara biziarekin. Jarraian, **Andres Iñigo** euskaltzain osoak eta Euskaltzaindiak Nafarroan duen ordezkariak, lurralde horretan euskara batuak izan duen eragina azaltzen du, nafar gizartean duen harrera eta horren erabilera, boladako iritzi makurren gaintetik, hauek ez baitira euskararen mesederako. Haren iritzi euskarak behar ditu erabilera areagotzea, bizitasuna, kalitatea eta ospea berarekin dituela. Horren ondoren, **Battitu Coyos** euskaltzain osoak eta *Jagon* sailaren buruak, euskara batua eta Ipar Euskal Herriko lurraldeek duten egoera aztertu eta malgutasunaren aldeko aldarria egiten du, berori aniztasunean kokatzeko, euskara batua eta hizkuntzaren erregistroak aintzat hartuz.

Zati hau osatze aldera, bi lan dira aipatzekoak: Lehena, **Amaia Jauregizar** Euskaltzaindiko ikertzaileak aurkezten duena, bertsolaritza, ahozkotasuna eta gelan sor daitekeen komunikazioa lotuz eta aurrekoaren ondorioz, tartean egon daitezkeen arazoak, irakaskuntzan jasotako irakasbideak bertsoak egiteko tenorean. Hurrena, **Maidar Bedaxagar** euskal hizkuntzalaritzan graduatuarena da. Euskara batuaren eta Zuberoako euskalkiaren arteko harremanez dihardu, eta bi errealitate horien arteko harreman orekatuak eta bidezkoak proposatzen ditu.

Laugarren arloan, modu berezian ikertzen dira estandarizazioaren gako nagusiak, hala nola lexikoa, morfosintaxia, toponimia eta antroponimia, betiere, ortotipografia, neologia, lexiko berezitua, eta osterantzekoak bazter utzi gabe. Hasiera emateko **Miren Azkarate** euskaltzain osoak eta Euskal Herriko Unibertsitatearen katedradunak euskara batuaren ezaugarri linguistikoak azaltzen ditu, Haugenek jarritako ildo klasikoari jarraituz. Horrenbestez, lau zati bereizten ditu: hautaketa, kodifikazioa, inplementazioa eta elaborazioa, eta lau horietan azaltzen ditu euskarak emaniko pausoak. Azkarateren iritzi, eman beharreko beste pauso batzuk ere badira, estandarizazio prozesua etengabekoa baita hizkuntzaren esparruan. Egin eginean ere, **Miriam Urkia** euskaltzain osoak, euskara estandarren lexikografia aurkezten du eta, era berean, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* osatzeko izan den bide malkartsua. Taxu berean, egun *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* baditu bere sarrerak, azpisarrerak, adierak eta adibideak eta estekaturik dago Euskaltzaindiaren beste lexikografia emaitzekin, on line sistemaren bidez. Bidean da kolokazioen mundua, gakoa dena hiztegiaren sarrerak egoki ulertzeko eta lekutzeko.

Bada, hala ere, hizkuntza akademia baten barnean bestelako esparruak, erabakigarri gertatzen direnak batasun prozesuan. Arean ere, **Patxi Salaberri** euskaltzain osoak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) katedradunak zehatz-mehatz ezagutarazten du euskararen antroponimia kodetzeko historia Euskaltzaindiaren zereginetan eta gisa berean, agerian uzten du ikerketaren

premia, ezinbesteko lanabesa baita hori diziplina honetan ondorio baliagarriak ezartzeko. **Roberto González de Vinaspre** euskaltzain osoak eta arlo honetako espezialista aitortuak, euskal toponimia estandarizatzeko Euskaltzaindiak egin duen lana deskribatzen du eta toponimia txikia lantzeko eskakizuna areagotzen. Bide beretik, Euskararen Corpus Onomastikoari lehenetasuna ematen dio eta horren bidez, Euskal Onomastikaren Datutegiari ere bai, Gasteizko Toponimia biltzeko egitasmoa eta euskal lurraldeetako kaleak euskaraz formulatzeko irizpide normalizatuak moldatzeko ahaleginak ahaztu gabe.

Arlo hau osatzen dute jakin-min handiko osterantzeko lanek: lehena, **Alfontso Mujika** euskaltzain urgazleak ondua, begien bistan jartzen duena euskararen estandarizazioak behar duen ortotipografia egokia, lehendik emanak izan diren arauak eta gomendioak berrikusiz eta eguneratuz, gaurko beharren arabera. **Antton Gurrutxaga** Elhuyar elkartearen kideak estandarizazio prozesuaren eta horien arauen preskribitatearen arteko loturak ikertzen ditu, euskararen lexicografia deskriptiboa egiteko orduan gabeziak zein diren argi erakutsiz.

Ondoren, **Igone Zabala** Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) irakasleak, ezin zehatzago galdatzen du *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* barneko osagaietan lexiko espezializatuen eta ez-espezializatuen arteko oreka, bide horretatik eskuratzeko hurbilketa berria eta terminoak deitu diren horiek hizkuntzaren hiztegi orokorrean areagotzeko moldea. Hari berari segiz, **Iker Etxebeste** UZEIko ikertzaileak hitz berriek *Euskaltzaindiaren Hiztegian* duten esanahiaz dihardu eta aldi berean, terminometria landu beharraz, euskararen inguruan egunero datozen errealitate berriak bildu nahian. **Iker Salaberri** Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) ikertzaileak, aurrekoaren ostean, euskararen estrategia bihurkarietz jarduten du, hizkuntzaren azterketa diakronikoa nahiz sinkronikoaren osagai funtsezko gisa baita hori, hizkuntzaren miaketan. Arlo honi amaiera ematen dio **Mikel Gorrotxategi** Euskaltzaindiaren Toponimia zerbitzuaren arduradunak. Pertsona izenak aztertzen ditu euskararen ikuspegitik eta horien erabileraren maiztasuna biltzen du, Hego Euskal Herrian nahiz Espainiako Erresuman.

Bosgarren arloa da, beharbada, hizkuntza normalizazioaren bilakaeran gehien lotzen dena elaborazio deituriko aldiarekin. Izatez, hortxe dago gakoa: hizkuntzaren aldetik eginiko hautaketa eta kodifikazioa hizkuntzaren erabileran isla izatea. Sei dira horretarako hautatu diren esparruak: lehena, **komunikabi-deak**, gizartean duten presentzia eta eraginagatik; bigarrena, **ingurune digitala**, oinarri-oinarrizkoa dena XXI. mendean; hirugarrena, **hezikuntza**, belaunaldien artean hizkuntza eta honen eragile kultural eta teknikoak transmititzeko nahi-taetzko habea; laugarrena, **arlo sozioekonomikoa**, agian, egun euskarak duen demarik funtsezkoena gizartearen barruan normatibizazioa txertatzeko; bosgarrena, **administrazio publikoa** euskararen lurraldeetan, euskararen ofizialtasu-

na eta horren ondorio linguistikoak eta, seigarrena eta azkena, **itzulpena eta literatura**, hizkuntzaren sorkuntza diren heinean, jada formulatuta dagoen normatibazioa erabiltzen dutenak eta bide berriak ireki, beraien emaitzak tartean direla.

Arlo honen azpexehetasunek aurkezpen harildua eskatzen dute. **Komunikabideei** dagokienez, hiru dira lanak: hasierakoan, **Asier Larrinaga** EITBren Euskara zerbitzuaren arduradunak Euskaltzaindiaren arauak eta euskal irrati-telebistaren eguneroko premiak jartzen ditu mahai gainean eta arauaren beharra baieztatzen du; halaber, hurbilago jokatzeko eskatzen dio Euskaltzaindiari, akademiaren eta egunero hizkuntza darabilten eragileen arteko konplizitatea handiagoa izan dezan; bigarrean, **Irene Arrarats Berria** egunkariaren arduradun linguistikoak lehenesten du komunikabideen lan linguistikoa hartzaileari egokitu beharra; haren iritziz honetarako naturaltasuna da giltzarria, une oro hartzaileak berez eta arazorik gabe ikus dezan kultura edukia duena. Azkenean, **Beatriz Zabalondo** Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) irakasleak, berak deskriptibo moduan ikusten duen ekarpen batean, euskararen estilo-liburuak aipatzen ditu eta horien lanabes izaera eta asmo pedagogikoa gehitzen du, komunikabideei halakoa baitagokie, arau linguistikoa gizarteratzeko ahaleginetan kokaturik.

Ingurune digitalari buruz, aintzat harturik eremu honetan euskarak garatzerik handiena izan duela azken urteetan, ekarpenak eite askotakoak dira. Lehena, **Ainhoa Arregi** eta **Axlor Elortza** UZEI elkartearen kideek moldatua, ICTren garrantzia esku-eskura ekartzen diguna, euskara moduko hizkuntza batentzat; orobat, halako eskakizuna, Euskaltzaindia bultzatzailea izan dadin esparru honetan, bertan lanean diharduten eragileekin batera, bereziki lexikografiaren eta corpus linguistikoaren aldetik. Ildo beretik, **Josu Aztiria** Elhuyar Fundazioko kideak halako dekalogoia planteatzen du euskarak aurrean dituen dema horiei buruz, eta lehenesten ditu kolaborazioa, autonomia teknologikoa eta kode irekiak, enpresa garapenarekin batera modu seguruan aurrera egiteko. Ildo bertsutik, **Ixa Taldeak** bere jardueren laburpena egiten du, hur-hurreko erronkak zerrendatzen ditu, besteak beste, corpusak, normatibazioa, lexikografia eta terminologia, itzulpen automatikoa eta humanitate digitalak, eta uste du horietan zeregin esanguratsua izan behar duela Euskaltzaindiak. Bukatzeko, **Elixabete Perez Gaztelu** Deustuko Unibertsitateko irakasleak gaurkotasan handiko gaia du hizpide; alegia, gazteen txateoak eta estandarra jartzen ditu erlazioan, elkarren arteko eraginak aztertzeko eta ikerketan jarraitzeko estandar jator baten bila joateko orduan.

Hezkuntzaren azpiarloan, lehendabizi dator **Helena Baraibar** Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko kidea. Berak marrazten duen egoerak hizkuntza mapa du xede, arau linguistikoaren gainetik jokatzeko eta hitzun osoak moldatzeko,

une bakoitzak dituen premia komunikatiboei aise egokitzen zaiena. Lerro bere-tik ere, **Imanol Artola** Kristau Eskolako kidea, euskarak dituen dema horietan dabilena, besteak beste, euskara erabilgarri, eguneratu eta garaikoa eta komu-nikazio eskakizunei egokitua, adostasunean oinarri duena eta hizkuntzaren pro-fesionalak aintzat hartzen dituena. **Xabier Isasi** Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) kideak euskararen komunitate linguistikoaren eraikitze prozesua azal-tzen du, azken mende erdi honetan; hartara, Txillardegiren lana gogoratzen du eta bide beretik, UEUrena, eta amaitzeko euskararen zereginetan jauzi kualitati-boa egiteko beharraz dihardu.

Arlo sozioekonomikoan, nondik norako ugariak dituzte ekarpenek. Zu-zenbidearen munduari dagokionez, **Elixabete Piñol** legelariak laburbiltzen du orain arte egin den lana eta aurrera jarraitzeko premiaz dihardu, eragile pu-bliko eta pribatuarekin batera, euskara juridikoa, espezialitate hizkuntza gisa, eskubide linguistikoaren eta estatusaren bidez zeregin zehatza izan dezan gizar-tean. Horren jarraikoa dira **Adur Ezenarro** eta **Ibai Gandiaga** udal arkitektoa eta UPV/EHUko irakaslea, hurrenez hurren, *Aldiri* aldizkaria aurkezten dute eta Arkitektura Hiztegia eta legeria, eta, era berean, alor honetan izan diren jar-dunaldien emaitzak, etorkizunean horien jarduera finkatzeko parametroak eta halakoetan euskarak jokatzeko duen zeregin oinarrizkoa azpimarratuz. Makina-erremintaren sektore industrialean, **Ibon Serrano** DANOBAT GROUP talde-kideak aurkezten ditu euren ahaleginak, corpus zein estatus mailan eta geroari buruz jarduten du, euskaraz lan egiteko eta euskara erabilgarria ontzeko pre-miaz. Eremu horri itxiera emateko, **Maddi Etxebarria** Elhuyarko kideak arlo sozioekonomikoaren ikuspegi orokorra eman ondoren, bertako erronkak azal-tzen ditu, besteak beste, eragileen inplikazioa, diskurtso egokia, euskara balore berezi gisa eta lege babesa.

Euskararen ofizialtasunak ekarri du horren erabilera **Administrazio pu-blikoan**. Bertan, **Ander Irizar** Nafarroako Gobernuko *Euskarabidea* erakunde autonomoko *Hizkuntza Baliabideen Zerbitzuko* zuzendariak lehen balorazioa egiten du eta Nafarroaz den bezainbatean lotzen ditu euskara batua eta herri-tarren premia linguistikoak, lotura horrek oihartzuna izan dezan hezkuntza prozesuan. **Manu Arrasate** Eusko Jaurlaritzako Herri Arduralaritzaren Eus-kal Erakundeko (IVAP) kideak itzulpenerako eredu baten aukeraz hitz egi-ten du, hain zuzen ere, egungo eredutik (es-eu) osterantzekora (eu-es) joan doana. Bertan ikusten ditu berak abaguneak eta, aldi berean, elkarrekiko lan planifikatuan. **Urtzi Barrenetxea** IVAPeko kidea ere, hizkera argiaren kon-tu batzuez ari da, batik bat, administrazio elektronikoan eta pantailan egiten den irakurketari buruz. Hor ikusten du berak prosa eredu bat bilatu beharra administrazioa eta herritarra hurreratzeko, eta horra, tankera berean, IVAPeko ahaleginak.

Bosgarren alor honetan azken katebegia dakarte itzulpenak eta literaturak. **Josu Zabaleta** itzultzaileak ekarpena egiten du eta sektore guztien lotura eta gogoeta sakona eskatzen du, euskararen munduan itzulpenak duen zeregina egoki zertzeko. **Joxerra Garzia**, bestalde, hizkuntzaren eta sortzaileen eta itzultzaileen arteko nondik norakoak laburbildu eta tartean diren arazoei irtenbideak emateko bi bide ikusten ditu: bata, estrategia argia eta adostua eta, bestea, hori gauzatzeko borondatea. Amaitzeko tenorean, **Xabier Mendiguren Elizegi** idazle eta argitarazleak arau linguistikoaren erabilera zabalago baten alde egiten du, erabilera jatorrago baten peskizan; betiere alboratu gabe halako iritzi nagusia, hots, euskarari dagokionez, egungo arazoak gehiago daudela estatusen corpusean baino.

Seigarren arloari dagozkio arau linguistikoaren zabaltze eta gizarteratzea. **Andres Alberdi** euskaltzain urgazleak aurkezten du bere zuzendaritzapeko lana, Euskaltzaindiaren batzorde batek egina, *Euskara Batuaren Eskuliburua* izenburupean. Bertan ordena alfabetikoan eta galde-erantzun sistema baten bidez ikusarazten dira, modu argi eta pedagogiko baten tankeran Euskaltzaindiak orain arte emandako arau linguistikoak. Eskuliburua paperean zein Euskaltzaindiaren webgunean kontsultatu daiteke (www.euskaltzaindia.eus).

Bernardo Atxagaren Epilogoak ixten du partaideen ekarpenen zerrenda. Testu horretan Atxagaren literatura trebetasunak erakusten du arraultzaren irudia erabiliz, euskararen historia Euskal Herriaren ibilbidearen bidez, etorkizunerrako hariak ere eskainiz.

Argitalpenaren itxiera dakar **Euskara Batuaren Adierazpenak**, Euskaltzaindiak moldatua eta euskalgintzaren erakunde, elkarte eta talde esanguratsuek sinatu dutena, euskara batuaren lehena, oraina eta geroa estekatuz oraingo eta gerokoaren belaunaldien arteko lokarri sendoa izan dadin euskara estandarra eta kultura baten eramaile beregaina.